

# Euskararen hitz-hasierako ahostunketa. Ikuspegi berriak

(Word-initial voicing in Basque. New approaches)

Martínez Areta, Mikel

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.

20007 Donostia

ecpmaarj@ehu.es

Jaso: 2008.01.10

BIBLID [1137-4454 (2008), 23; 381-400]

Onartu: 2008.07.15

---

*Lan honetan euskararen hitz-hasierako leherkariak pairatzen duten ahostunketa aztertzen dugu. Uste dugu barneko faktoreak nahikoa direla kokaleku horretan antzinako lenes-ak zergatik ahostuntzen diren azaltzeko. Bestalde, salbuespenetan parte har dezaketen parametroak ikertzen ditugu. Batetik, hitz berean beste leherkari ahoskabe bat dagoenean, leherkari horrek ahostasun-armonia baten bidez hitz-hasierakoaren ahoskabeketa eragin dezake. Bestetik, erro hauetan zein gainontzekoetan espresibitateak ere parte har dezake.*

*Giltza-Hitzak: Fonetika. Hitz-hasiera. Ahostunketa. Ahoskabeketa. Espresibitatea. Euskara. Latina. Mitxelena.*

*En el presente trabajo estudiamos la sonorización que padecen las oclusivas iniciales de palabra en el euskara. Creemos que los factores internos son suficientes para explicar por qué en esa posición los antiguos lenes se sonorizan. Además, investigamos los parámetros que pueden tener que ver en las excepciones. Por una parte, cuando en la misma palabra hay otra oclusiva sorda, esta oclusiva puede provocar por armonía sonora el ensordecimiento de la inicial de palabra. Por otra parte, tanto en estas raíces como en las demás la expresividad también puede intervenir.*

*Palabras Clave: Fonética. Inicial de palabra. Sonorización. Ensordecimiento. Expresividad. Euskera. Latín. Mitxelena.*

*Dans ce travail, on étudie la sonorisation dont souffrent les initiales explosives de mots en euskara. Nous croyons que les facteurs internes sont suffisants pour expliquer pourquoi, dans cette position, les anciens lenes se sonorisent. De plus, nous recherchons les paramètres qui peuvent avoir quelque chose à voir dans les exceptions. D'une part, lorsqu'il y a une autre explosive sourde dans le même mot, cette explosive peut provoquer l'assourdissement de l'initiale du mot par harmonie sonore. D'autre part, dans ces racines comme dans les autres l'expressivité peut également intervenir.*

*Mots Clé : Phonétique. Initiale du mot. Sonorisation. Assourdissement. Expressivité. Euskera. Latin. Mitxelena.*

## SARRERA<sup>1</sup>

Badago euskararen fonetikan garai orotako euskalariói biziki deigarri suertatu zaigun gertakari bat: antzinakoak diruditen bertako hitzetan, hitz-hasieran leherkariak ahostun izateko joera dute (*bat, buru, berri, dago, dute, garai, gogor, gerri*), eta aldi berean mailegurik zaharretan, hitz-hasierako leherkari ahoska-beak normalean ahostuntzen dira latinetik euskarara igarotzen direnean (lat. *tempora* > eusk. *denbora*, lat. *corpus* > eusk. *gorputz*).

Baina, hitz-hasierako ahostunketa ikertzeari ekiten dion edozein euskalari berehala jabetzen den legez, arazo orokor honen inguruan faktore eta parametro mordo bat korapilatzen da. Aurrenik, kronología: hitz jakin bat antzinakoa —bertakoa— izanez gero, hitz-hasieran leherkari ahostunak izango ditu ia beti; mailegu zaharra baldin bada, hitz-hasierako leherkari ahoskabe batek ahostuntzeko joera izango du; mailegu berriagoetan, ordea, kontrako joera dago<sup>2</sup>. Bigarrenik, euskalkitik euskalkira ageri zaigun aldakortasuna: inguraldeko euskalkietan mailegatutako ahostasuna mantentzeko joera argixeagoa dago. Hirugarrenik, hitzaren egitura: hitz baten hitz-hasierako ahostasuna hitz berean beste leherkari ahoskaberik egotearen menpe egon daiteke. Laugarrenik, espresibitatea: itxura espresiboa duten hitz batzuetan, leherkari ahostun bat aurkitzea espero genukeen kokalekuan ahoskabe bat aurkitzen dugu. Bostgarrenik, Lakarrak (1995) aitzin-euskararako berreraikitako CVC erroetan, lehen C-a leherkaria bada gertakari bereziak suma ditzakegu, gerotziko hitz-hasierako gertakarietan ere garrantzitsuak izan daitezkeenak.

Parametro franko jokoan izateaz gain, berauen arteko elkarrakzioa ere bada-go. Honek hitz-hasierako ahostunketaren azalpen orokar bat egitea eragozten digu, eta ez da hori hemen gure eginkizuna izango. Aitzitik, parametro hauen guztien azterketa analitiko, banan-banakoa, burutu eta ondoren zenbait hausnarke-ta xume eztabaidaratu besterik ez dugu gogo.

Euskararen hitz-hasierako ahostunketaren azalpen tradizionala Martinet-ek (1950, 1955) eta Mitxelenak (1951, 1957, 1961/1977) ezarri zuten eta 1. atalean laburtu dugu. 2.ean, azken urteotako ikerketen haritik sortu den eta aurreko azalpenari zenbait zehaztapen ezar diezazkiokkeen ikuspegi berria aurkeztuko dugu. 3.-5. ataletan, aipatu berri ditugun zenbait faktore —T-T erroetan ageri diren asimilaziozko ahoskabeketak, T-T erroez kanpoko bestelako ahoskabeketak eta aitzin-euskararen TVC erroen nondik-norakoak, hurrenez hurren— jorratu-ko ditugu, datu datazio eta guzti beharrezkoa denean. 6. atalean, elementu hauen guztien hurrenkera bat ezartzen saiatuko gara.

---

1. Lan hau bi Ikerketa Proiektu kolektiboren esparruan egin da: 1) Hezkuntza eta Zientziak Ministerioak finantzatutako "Fundamentos para unos Monumenta Linguae Vasconum II: historia, crítica y edición de textos vascos" (HUM 2005-08047) izenburuko bat; eta 2) Eusko Jaurlaritzak finantzatutako "Lingüística histórica e historia de la lengua vasca" izenburuko beste bat. Bi kasuetan, parte-hartzaileak EHUko Letren Fakultateko ikertzaileak dira, Joseba Lakarra Andrinua Katedraduna ikertzaile nagusia delarik.

2. Egia esan, hemen bi parametro sartu ditugu. Bata, hitz jakin bat mailegua den ala ez; bestea, mailegua izanez gero zein garaikoa den.

## 1. MARTINET (1950, 1955) ETA MITXELENA (1951, 1957, 1961/1977)

Hitz-hasierako ahostunketa azaltzeko, Martinet eta Mitxelena eragin erromaniakoaz baliatzen dira. Martineten azalpena honelaxe laburbil daiteke. Euskara zaharrak bi leherkari serie zituen: bortitzak (/T, K/) eta ahulak (/B, D, G/). Biak hitz-hasieran nahiz hitz-barnean ager zitezkeen, baina azentuak baldintzatutako gauzatze fonetiko ezberdinekin: azentupeko hitz-hasieran [t<sup>h</sup>], [k<sup>h</sup>] eta [b̥], [d̥], [g̥] ahoskatzen ziren bitartean, azentuaren ondorengo hitz-barnean [d̥], [g̥] eta [β], [ð], [ɣ] ahoskatzen ziren. Lexikoa maileguak jasotzen hasi zenean, hitz-hasieran latineko leherkari ahoskabeak nahiz ahostunak fonetikoki euskararen serie ahuletik ziren gertuago, eta horrexegatik gauzatu zituzten garai hartako euskaldunek haien leherkari ahulen bidez latinetik mailegatutako hitz-hasierako leherkariak oro: lat. /p-, t-, k-/ nahiz lat. /b-, d-, g-/ > eusk. \*/b̥-, d̥-, g̥-/. Gerora, euskararen bertan geratzen ziren hitz-hasierako leherkari bortitzek beste garapen bat pairatu zuten, zeinen bidez \*/t<sup>h</sup>-, k<sup>h</sup>-/ > /h-/ > /Ø-/. Garapen hau gauzatu ondoren, hitz-hasieran leherkari ahulak soilik ager zitezkeen hitz-hasieran, eta eragin erromaniakoaren presiopean \*/b̥-, d̥-, g̥-/ leherkari ahul baina ahoskabe hauek ahostun-ekin ziren, > /b-, d-, g-/.

Mitxelenak ez ditu sekula Martineten teoriak *expressis verbis* deuseztatzen, baina bere azterbidearen arabera badirudi berak ulertzen duela \*/t<sup>h</sup>-, k<sup>h</sup>-/ > /h-/ > /Ø-/ aldaketa funtsean burututa dagoela euskara maileguak jasotzen hasi orduko. Honela, are ulergarriago suertatzen zaigu latineko hitz-hasierako leherkariak oro euskararen serie ahulean amaitu izana, kokaleku horretan eta garai hartan hau serie bakarra baitzen. Baina Martineten eta Mitxelenaren planteamenduen arteko desdoikuntza hau ez da erabakigarri gure argudiaketan, biak irizkide azaltzen baitzaizkigu serie bakar horren ahostunketaren arrazoia kanpo faktoreetan —hots, eragin erromaniakoan— bilatu behar dela onartzean. Horixe da guretzat funtsezkoa eta eztabaidapean jarri nahi genuena.

## 2. BESTE AZALPEN BAT: BARNEKO FAKTOREAK

Izan ere, hitz-hasierako ahostunketaren eragile nagusia barneko faktore bat delakoan gaude. Gauza ezaguna da hasperenketa duten egungo euskalkietan hitz bakoitzak hasperenketa bat baino ezin duela izan. Baina akitanian inskripzioetan zein 1025 urteko CSM agirian bi hasperenketa dituzten hitzak agertzen zaizkigu: *HAHANNI*, *HAHANTENN*, eta *Harhaia*, *Harhazua*, hurrenez hurren. Honek hasperenketen disimilazio prozesu bat inpliketzen du, baina baita zerbait gehiago ere. Gure aburuz, hitz bakoitzak hasperenketa bat baino gehiago izan zitzakeen garaian, leherkari ahoskabeak bortitzak edo *fortes* ziren, hasperenketa haien ezaugarri bereizgarri bat zelarik. Leherkari ahostunetan (ahul edo *lenes* direlakoetan), ordea, honi legokiokeen kontrajarritako ezaugarria ez-hasperenketa izango litzateke, baina ez ahostuntasuna, bortitzak hasperendun izaki ezaugarri hau ez baitzen beharrezkoa leherkari bortitzak eta ahulak bereizteko.

Baina hasperenketen disimilazioa gauzatu zenean, hitz bakoitzean ager zitezkeen hasperenketa bakarria ezaugarri sintagmatiko bihurtuko zen. Hau da, ez

zen jada leherkari bortitzen ezaugarri bereizgarri bat, testuinguru fonetikoak —azentuak, alegia— baldintzatutako gertakari sintagmatiko bat baizik. Lehenago ez bezala, orain ahostuntasunaren ezaugarri bereizgarria erabat beharrezkoa zen leherkari ahulak bortitzetatik bereizteko. Horra hor /b̥, d̥, ɡ̥/ > /b-, d-, ɡ-/ bilakaeraren arrazoa.

Hitz-hasierako ahostunketak, beraz, hizkuntzaren barneko egituraren bertan izan dezake lehenengo motibazioa. Honek ez du esan nahi hizkuntza erromani-koen presioak ez duenik inolako eraginik izan. Aitzitik, joera indartu zuelakoan gaude, baina prozesua aipatutako barneko faktoreek piztu zutela onartuz. Beste alde batetik, Martinet eta Mitxelenarekin bat gatzoz zenbait testuingurutan antzinako ahoskabetasunaren zantzuak mantendu direla. Hala nola, txistukari baten ondorengo kokalekuan (*ez-tago ~ dago, ez-tu ~ du*) eta konposatuen bigarren osagaiko hasieran (*atse-kabe ~ gabe, besa-pe ~ behe*).

### 3. T-T ERROAK ETA AHOSTASUN-ARMONIA

Beste galdekizun bat da hitz-hasierako leherkari baten ahostasuna bigarren silabako leherkari batek baldintza dezakeen ala ez. Dirudenez, batzuetan hitz-hasierako leherkari bat bigarren silabako leherkari ahoskabe baten eraginaz ahoskabe mantentzen (edo berriro bihurtzen) da (*gal-* + *-te* > *kalte*, *biz-* + *-tu* > *piztu*). Mitxelenak berak (1961/1977: 241-242) aipatu zuen puntu hau. Irudika dezagun joera hau erregela baten bidez:

- 1) Hitz-hasierako ahostunketaren erregela (lexiko osoari dagokio; ez da beti betetzen):

T > [-ahost.] / # \_ V(C).T(-ahost.)V (*gal-* + *-te* > *kal.te*)

T > [+ahost.] hitz-hasierako gainontzeko testuinguruetan (*buru, gi.bel*)

[Hots, hitz-hasierako leherkari bat ahostundu egiten da (ahoskabea bazen); baina bigarren silabako atakean leherkari ahoskabe bat egoteko-tan, honek hitz hasierako leherkaria ahoskabetu egiten du.]

Erregela honek bi salbuespen mota ditu: 1) lehen motakoetan, hitzean beste leherkaririk ez dago baina hitz-hasierako leherkaria ahoskabe mantentzen da (*koroa* < lat. *corōna*); 2) bigarren motakoetan, hitzean (funtsean bigarren silabako atakean) leherkari ahoskabe bat dago baina hitz-hasierako leherkaria ahostun azaltzen da (*buz-tan*). Atal honetan, bigarren motakoez ari-tuko gara.

Kontzentra gaitzen, beraz, lehen silabako zein bigarreneko atakeetan leherkari bana duten erroetan (*kalte, gibel...*), hau da, #TV(C).TV... egiturakoetan. Labur aritzeko, hemendik aurrera hauei T-T motakoak esango diegu. Bada, T-T motako erro hauei dagokienez, ikusi dugun lehen erregelak auresaten du bigarren leherkariaren ahostasunak lehenarena zehaztuko (edo determinatuko) due-la; bestela esan, bi leherkariaren artean ahostasun-armonia izango dugu. Irudika dezagun, beraz, ahostasun-armoniaren erregela hau:

- 2) Ahostasun-armoniaren erregela (T-T motako erroei dagokie; ez da beti betetzen):

T > [ $\alpha$  ahost.] / # \_ V(C).T( $\alpha$  ahost.)V (*gal-* + *-te* > *kal.te*, *gi-* + *-bel* > *gi.bel*)

[Hots, T-T erro batean, lehen leherkariaren ahostasuna bigarrenarenak determinatuko du. T-T erroetara mugatutako lehen erregelaren zehaztapen bat da.]

Arazoa da ahoskabeketaren asimilazio hau batzuetan gauzatzeko delatzen eta beste batzuetan ez, eta ezinezko suertatzen zaigula zehaztea zein baldintzapek nek sorrarazten duen emaitza bat ala bestea. Zilegi bekigu T-T egiturako zenbait erro historikoki arakatzea.

Hona hemen mailegu batzuk<sup>3</sup>:

**korputz / gorputz** (< lat. *corpus*): *korputz* (V-gip, G-to-bet, AN-egüés-ilzarbolza, Sal); *korpitz* (*kh-* S, R; *kh-* Gèze, Dv, H); *korpiz* (R); *gorputz* (V, G, AN, L, *-ph-* BN, Ae; Lcc, SP, Ht, Lar, Añ, H); *gorpitz* (*-ph-* BN, S; *-ph-* VocBN, H).

**kaztaina / gartzaina** (<lat. *castāneam*): *kastaña* (R; Lcc); *kaztaña* (AN-olza); *kaxtana* (Sal, R); *gartzaina* (gral). Beste aldaera batzuk: *gartzain*, *gartzena*, *gartzaina*, *gartzana*, *gartzan*.

**katu** (< lat. *catus*): *katu* (gral; Lcc, Lar, Añ, Dv, H (V, G)); *gatu* (AN-egüés-erro-ilzarbolza, L, BN, Ae, Sal, S, R; Volt, Ht, H, *-th-* SP, Urt, Arch, Dv, Gèze, H). Deigarria da kasu honetan, gainontzekoetan ez bezala, gaztelerak ere hitz-hasierako ahostunketa jaso izana.

**kipula / gipulla / tipula** (< lat. *caepulla*): *kipula* (V-ger-och-m-gip, G, AN-araq; Lar, H); *gipulla* (*-ea det.* Lcc.); *tipula* (G, AN, L, B, BN, Ae, S, R). Beste aldaera batzuk: *tipul*, *tipola*, *tipla* (Sal), *tupla* (R), *kenpolla*, *kipola*, *kipulla*, *kipurra*, *kinpula*, *kinpulla* eta *tepula*.

**kate / gate** (< lat. *catēna*): *kate* (V, G, AN-5vill-egüés-ilzarbolza, B, Sal, *kh-* Sal; Mic, Lar, Añ, H (V, G), VocB); *katee* (V-gip); *katae* (V-gip, B); *katei* (V-gip); *katai* (V-gip); *kadena* (BN-arb; SP, H (+ *kh-*)); *gate* (G-nav; Lcc, Volt; *-th-* SP, Deen, Urt, Ht, Arch, Dv, H, A). Beste aldaera batzuk: *kade*, *kate-na*, *kadina*, *katia*, *katina*, *katxina*, *gatin*.

**tenpora / denbora** (< lat. *tempora*): *tenpora* (Lcc); *tenpra* (R-vid); *tenbra* (Sal); *trenpa* (R); *denbora* (V-gip, G, AN, L, Ae, BN, S, R; Volt, SP, Urt, Ht, Lar, Añ (G), Leal, Arch, Gèze, Dv, VocB, H); *denpora* (V; Mic, Añ (V)); *denbra* (Sal).

**torpe / dorpe** (< lat. *turpem*): *torpe* (*th-* S; SP, Arch, H; *th-*, Gèze, H); *dorpe* (SP, Ht, VocGr, Lar, Lecl, VocBN, *-ph-* Urt, Dv, H); *dorfe* (Añ).

**titare / ditare** (< lat. *digitālem*): *titare* (V-ger-oro, G, AN-sept, L-sar, Ae, Sal; Lar, H, *det.* Mic, Añ); *ditare* (AN-ulz, *-th-* L, BN, S; Lcc, Deen, VocB, *-th-* Volt, SP, Ht, Dv, H).

---

3. Interesgarri gerta dakizkigukeen datu batzuk aurkeztuko ditugu jarraian. *Orotariko Euskal Hiztegi*-tik atera ditugu, eta lan haren laburdurak erabili ditugu.

**tupina / dupina** (< lat. *tupina*): *tupina* (AN-erro, L, B, BN-baig, S; Dv; det., SP, Lar, Añ (+ *-iña*), H; *thüpiña* S; Foix); *tupin* (V-gip, L, B, Sal, R; VEys (V, L), VocB); *dupina* (BN, S; SP (det.), H (det.); *-ph*- VocBN, Dv); *dupin* (L, BN-baig; Hb, VEys (L); *-ph*- Veys (BN)). Beste aldaera batzuk: *topina*, *topin*, *tupia*, *tupí*, *topia*, *tupuina*, *tipina*, *tipin*, *dipiña*.

**thipiltü** (< lat. *dēpilāre*): *thipiltü* (S; Dv, VocS, Gèze, H).

**pake / bake** (< lat. *pācem*): *pake* (V-ple, G, R-uzt; Lar, Añ, H, Zam); *bake* (V, L, AN, Sal, S, R; Lcc, Mic, SP, Urt, *-kh*- Ht, Lar, Añ, *-kh*- Lecl, Arch, VocGr, VocBN, Gèze, Dv, H, Zam); *fake* (AN).

**pekatu / bekatu** (< lat. *peccātum*): *pekatu* (V, G; Mic, Lar, Añ, Zam); *bekatu* (V-gip, G, AN-egüés-ilzarb-olza-ulz, Sal, R, *-kh*- L, BN, S; Lcc, SP, Lar, Añ, H, *-kh*- Urt, Ht, Lecl, Arch, VocBN, Gèze, Dv, H). Patroi hau (V-z beti edo ia beti *p*-, G-z *p*- ~ *b*-, eta Ekialderago beti *b*-) batzuetan agertzen da.

**parkatu / barkatu** (< lat. *parcātum*): *parkatu* (V, Sal, R, *pharkatü* S; Añ (V), Zam, *ph*- Gèze, H); *barkatu* (V-gip, G, AN, *-kh*- L, NB, S; VocS, Lar, Añ (G), H, Zam; *-kh*- SP, Urt, Ht, Lecl, Arch, Dv, H).

**portitz / bortitz** (< lat. *fortis*): *portitz* (G, B; Lar, Añ, H); *bortitz* (L, B, BN, *-th*- S; Ht, Lar, VocS, Añ, Lecl, *-th*- SP, Urt, VocBN, Gèze, Dv); *fortitz* (V-gip).

**piku / biku** (< lat. *fīcus*): *piku* (V, G-nav, AN-sept-erro, B, BN-baig, Ae, Sal; IC, Aq (AN), H); *piko* (V-m, G, AN-gip-larr-ulz, L, B, BN, Sal, S; Ht, Lar, Añ (G), Dv, Lcq, H, Zam, *ph*- Arch, VocBN, Gèze, H); *biku* (Ae; H (V, G)); *fiku* (Lcc); *fiko* (L; SP, Urt, H); *figo* (R). V eta AN euskalkietako eskualderen batean hasierako leherkaririk gabeko formaren bat ere kausitzen da (*iko*, *igu*).

**piztia** (< gazt. *bestia*): *piztia* (V, G; det., Lar, Añ); *pistia* (V, G, AN-gip; det., Añ (G), H (V, G)); *-ija* Dgs-Lar); *pizti* (V-m-gip, G-bet); *pisti* (V-ger-m, G, AN-ulz). Beste aldaera batzuk: *pristia*, *frizti(a)*, *fristia*, *prizti(a)*, *fisti*, *ipixtia*.

Beste hauek, ordea, bertako elementuez osatuta daude:

**kal-te / gal-te** (< *gal*-; ik. *gal-du*): *kalte* (V, G, AN, L, BN ; Volt, SP, Urt, Ht, Lar, Añ, lzt, Lecl, VocBN, Dv, H); *galte* (R; Lcc, Volt, LE). Ohar bedi ahos- tunaren lekukotasunak inguraldeko eskualdeei dagozkiela.

**kur-tu / gur-tu** (~ *e-gur*): *kurtu* (AN-egüés, BN; SP, Aq (G, AN)); *gurtu* (BN- mix, Sal, S (*gürtü*), R; Gèze (*gürthü*), Dv, H).

**kur-pil / gur-pil** (< *gurdi*- + *-bil*): *kurpil* (G, AN-ulz; H, *-ill* Lar, Añ, H); *gurpil* (G; H, *-ill* Lar, Añ (G), H); *burpil* (V; *-ill* Aq (R), Añ (V)); *burbil* (V-ger).

**kir-ten / gir-ten**: *kirten* (V, G-goi-to-bet, AN-larr; Lar, Añ, Dv (que cita a It), H); *kerten* (V-gip, G); *girten* (V-ple, G-nav; Lar, Dv (*-th*-)).

**piz-tu / biz-tu** (< *biz*-; ik. *biz-i*): *piztu* (V-gip, G, AN, BN, S; Ht, VcGr, Lar, Añ (G, AN), lzt , Dv (V), H, Zam, *ph*- Gèze, Dv, H); *biztu* (AN-gip-5vill, Sal, R; Lar, Añ, lzt, Hb, Dv, H, Zam). Bi formak XIX. mende erdi aldera arteko ipartar autoreengan txandakatzen dira, bai eta AN, G eta V euskalkie- tako testuetan ere.

**puz-ker / buz-ker** (~ *buz-tan*): *puzker* (G-azp-bet, AN-gip, L, B; Lar, Añ (G), H); *puzkar* (V-gip, G, AN, BN; Zam); *buzker* (Ae). Badira, orobat, hitz- hasierako leherkaria galdu duten aldaera batzuk: *uzker*, *uxkar*, *uskar*.

**puz-tan / buz-tan:** *puztan* (B; VocB); *buztan* (gral); *buztain* (Lcc); *buzten* (V-gip, G-nav, AN-olza; -st- Añ).

Maileguei dagokienez Mendebaldean gainontzeko eskualdeetan baino hitz-hasierako leherkari ahoskabe gehixeago izan arren —agian presio erromanikoaren ondorioz—, ez bide dago emaitza hauek zehaztasunez aurreratu lagun diezagukeen irizpide ez geografikorik ez semantikorik<sup>4</sup>. Dena den, oro har gertakari berantiarra da. Adibidez, *kal-te*-ren (< *gal-* + *-te*) aldaera ahostundua, *galte*, lekukotasun periferikoetan dakusagu (Landucci-n, erronkarian, Lizarraga Elkano-koa-n), eta nekez izan dezake honek azalpen egokirik arkaismo moduan ez bada. Bertako morfemez osatutako beste zenbait kasutan ere (ik. *piztu*, *puzker*, *gurtu*) aldaera ahostundua eskualde periferikoetan agertzeko joera agertzen du. Kasuren batean (ik. *piztu*), lekukotuta dago nola kronologikoki aldaera ahoskabea nagusituz joan den, beste batzuetan honelakorik ez delarik inon agertu ere egiten (adib. *bekain*, *bekaitz*). Badirudi, beraz, armoniaren erregelak —bertako hitzetan behintzat— zabalduz joan dela mendeetan zehar, eta akitanierazko testigutzak susmo hau indartzeko joera agertzen du: *BONTAR*, *BONTEN*, *BONTOS*, *BORCONIS*, *BORTOSS*<sup>5</sup>.

Maileguen hitz-hasierako ahostasuna bestelako arazo bat da. Aldaeren arteko banaketa, ezberdin ez ezik, aurrekoen kontrakoa ere izan daiteke. Honela, orokorra den *gastaina*-ren aurrean, *kastaña* Landucci-n zein erronkarian ageri zaigu, (ia) orok. *kalte* / Lcc. R. *galte* egokitzapenaren erabat kontrako banaketa. Baina seguru asko banaketa honen arrazoia alboko hizkuntzen eraginean bilatu behar dugu, eta hortaz banaketak berak ez diosku deus ahostasun-armoniaren erregelaren zabalkuntzari buruz. Bestela esan, egoera zaharra nolakoa zen ikerzteko, bertako hitzei begiratu beharko diegu.

Ahostasun-armoniarako motibazioaren galdekizunari bagagozkio, bi dira aipatu beharreko faktore posibleak: 1) asimilazio fonetikoa; eta 2) hitz-hasierako ahoskabeketaren erabilpen espresiboa. Lehena testuinguru fonetikoak automatikoki eragindako prozesua da (hortaz, adierarik gabekoa); bigarrena, ez du testuinguru fonetikoak eragiten eta adiera edo ñabardura semantiko bat dakar. Bi faktore hauek ez dira bateraezinak eta printzipioz bata, besteak edo biek batera eragin lezakete ahostasun-armonia. Batetik, ahostasun-armonian asimilazio garbia dago eta hori ekonomia fonetikoarekin bat dator. Gainera, sistemaren egi-

---

4. Ik. Mitxelena (1961/1977, 239): “no hay ninguna regularidad, sino a lo sumo mayores o menores frecuencias, en su distribución geográfica”.

5. Kontrakoen zenbait adibide ere badira, baina ez aipatutako joera deuseztatzeko bezain indartsu. Hauetariko bat *PORCONIS* dugu. Etimologiaren aldetik, honek Iberiar Penintsulako eremu ez-indoeuroparreko onomastikan ohikoa den *Porcius* izenarekin parekatu da (ik. Gorrochategui 1984, 177 eta 252). Fonetikari datzekionez, *p-* euskararen *lenis* zahar baten adierazpide izan liteke. Orde-na belarean ere *CISON* / *GISON*-txandaketa dugu, eta /b̥-, d̥-, ğ-/ > /b-, d-, g-/ aldaketaren zantzu edo izan liteke (ik. Gorrochategui 1984, 185-186). Beste bat *TORSTEGINNO* dugu, baina lehen elementuaren identifikazioa iluna da. Hirugarren bat, *TALSCONIS*, baina *HALSCONIS*-ekiko ohiko erkaketa kontuan harturik, hobe dugu *TALSCONIS* \*/t<sup>h</sup>/ > /h-/ aldaketa gauzatu baino lehenagoko geldikintzat jotzea, ez ahostasun-armonia baten emaitzatzat (\*\**DALSCONIS* > *TALSCONIS*).

tura fonologikoarekin erabat bateragarria da. Hitz-hasieran leherkarietarako ahostasun-oposaketarik ez zegoen bitartean, fonetikoki askoz erosoago suertatzen zen ahostasun-armonia erabiltzeak ez zuen inolako distorsiorik eragiten, kokaleku horretan maila fonemikoan zilegi zen fonema bakarrak, /g-/ leherkari ahostunak<sup>6</sup>, [k-] alofono ahoskabea aurkez zezakeelarik. Baina bestetik, gertakari honek inolako zalantza-izpirik gabe espresibo diren beste baliabide batzuekin gutxienez bi ezaugarri estruktural partekatzen ditu: 2a) palatalizazio espresibo bezalaxe, izenetan soilik agertzen da, baina (ia) inoiz ez adizkietan, izenordainetan, zenbakietan edo bestelako hitz gramatikaletan (*gal-te* > *kalte*, *biz-tu* > *piztu*, *bake* > *pake*, *barkatu* > *parkatu*...; baina *\*\*tu-ke* ~ *duke*, *\*\*ta-te* ~ *date*, *\*\*ku-tako* ~ *gutako*, *\*\*pakoitz* ~ *bakoitz*, *\*\*pakar* ~ *bakar*...)<sup>7</sup>; 2b) mailegatutako /f/ fonemak bezalaxe, nabari da garai zaharrenetan hitz-hasierako leherkari ahoskabeek zailtasunak izan dituztela sisteman sartzeko, baina behin sartuta haien bitxitasuna dela medio espresibotzat hartu direla eta noizbehinka lexikoan hedatu direla<sup>8</sup>.

Ostera lekinguke aurrekoetariko lehen faktorea, hau da, asimilazio fonetiko, nahikoa izan daitekeela T-T erroen ahostasun-armonia azaltzeko. Bi oharpen markatu nahi genituzke hemen. Lehenik, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, T-T erroez kanpo ere badira hitz-hasierako ahoskabetak, eta hauetan asimilazioaren azalpena ez da baliozko argudiorik. Bigarrenik, Schuchardt-ek (1906/1957, 1906/1959, 1906/1960) jadanik ohartarazi gintuen legez, leherkari ahoskabeek osatutako T-T egiturako hainbat maileguk badute, berez, kutsu espresiboa. Hala nola, lat. (Pl.) *cuscolium* “kermes-ale”, agian iberiar jatorriko hitza, euskararen hitz sorta zabal baten sorburua izan liteke. Gazt. *coscojo*-k mantendu duen adiera nagusiaz gain (G. *kuskulu*, G. R. *kuskuilla*, L. *kuskuilla*, AN. *kaskarabill*), oinarri honetatik abiatutako adierazleak nahiz adieraziak izugarri ugaritu dira euskararen barnean. Schuchardt-ek (1906/1957, 475 eta hh.) kategoria semantiko ezberdinetan sailkatzen ditu adarkadura hauek guztiak. Hona hemen zenbait, k-k egituraren gaitasun espresiboaren irudi:

1. Gorputz borobil, beste gorputz handiago baten gainetik nabarmentzen dena:

“ur-burbuila”: L. Lecl. *kuskuila*, S. *kuskuilla*, BN. *kuskilo*, V. *koskabillo*, AN. *kaskarabill*.

“pusla”: *kuskuilu*, R. *kuskuli*, L. *kuskuiladura*, BN. *kuskuildura*.

- 
6. Ordena belarea aukeratu dugu adibide gisa.

7. Hala eta guztiz ere, Caminok (1997, 344) Ezterenzubin *póst* lekukotuta dagoela markatzen du, eta kasu honetan zenbaki batez ari gara. Dena den, honelako kasuak bazterrekoak dira eta ez dute joera baliogabetzen. Berdintsu palatalizazioari dagokionez: *zakur* > *txakur*, *zekor* > *txekor*, *sagu* > *xagu*, *labur* > *llabur*, *nigarrez* > *nigarrez*...; baina inoiz ez *\*\*exan* ~ *esan*, *\*\*ixan* ~ *izan*, *\*\*xaxpi* ~ *zaxpi*, *\*\*xein* ~ *zein*, *\*\*ñi* ~ *ni*... Ekialdean agertzen diren *duxu* (~ *duzu*), *xu* (~ *zu*) eta honelako bazterreko beste zenbait adizki edo izenordain erregela baieztatzen duten salbuespena baino ez dira.

8. Batzuetan, etimologikoki ez legozkien hitzetara ere: BN. *ferde* (< gazt. *verde*), L. *frogatu* (< lat. *probātum*), AN. *future* (< gazt. *buitre*). Ik. Mitxelena (1961/1977, 266). Ahoskabetak ere batzuetan hitz lat.-errom. ahostundun batetik garatzen da: gazt. *bestia* > eusk. *piztia*, honek aldaera ahoskabe-dunik agertzen ez duelarik.



2. Azal borobil, ganga-formakoa eta gorputz bat biltzen duena:  
"oskol": AN. V. BN. G. L. *kosko*, BN. L. S. *kusku*, V. G. *kaskal*.  
"gaztaina-oskol": BN. *kozkil*, G. *koskol*.  
"buru-hezur": AN. L. *kosko*, BN. L. *kasko*, V. G. *kaska*, V. *kasket*, *koskor*, R. *kozkor*, V. G. *kaskar*, *kazkar*.
3. Lerro kurbatuak, biribilak edo kiribilak eratzen dituztenak:  
"kizkur": L. *kuskuila*.  
"txirikorda": L. *kuskula*.  
"eraztundun": BN. *kuskul*, *kuzkula*, L. *kuzkuil*, BN. *kazkurrio*.  
"uzkurtua, zimeldua": AN. G. L. *kuzkur*.

Schuchardt-ek beste asko aipatzen ditu. Zenbait eztabaidagarriak dira, edo beste oinarri batzuekin gurutzatu dira. Honela, AN. *kaskatu*, R. S. *kaska*, BN. L. S. *kazka* eta antzerako beste batzuetan baliteke lat. *quassicāre* "inarrosi" aditzak esku hartu izana. Baina, oro har, ezin uka daiteke Schuchardt-ek iradokitzen duen ideia nagusia: tankera honetako hitzek kutsu espresiboa eta ugaritzeko joera nabarmena dutela<sup>9</sup>. Bestalde, kasuren batean lekukotuta dago nola hitz batek leherkari protetiko bat hartzen duen, agian k-k egitura espresiboa bereganatzeko helburuaz: V. G. *kiriki(ñ) o* < lat. *ēricius*<sup>10</sup>. Azken finean, k-k egitura soinu baten erreduplikazioa da, eta erreduplikazio orok kutsu espresibo bat du. T-t zein p-p egiturekin berdintsua gertatzen da, (jatorri, kronologia eta hedapen dialektal ezberdinetako) honako hitzak erakusten duten legez<sup>11</sup>: *titi, tanta, tente, tintin, tantar, tontor, tuntun, total, trosta, papar, popa, popil, pinpin, pinport, pampina, pospolin, pinpirin, pinpilinpauxa...* Baina, k-k, t-t, p-p egiturez gain, leherkari ahoskabeaz osatutako gainontzeko T-T erroei ere badarrie halako espresitate bat: *kutun, kopeta, kito, tenk, topo, tupust, traska, truk, triku, trokatu, talka, taupada, poker, pot, porrot, palast...* Eta berdintsu euskaraz hain emankor diren onomatopeiei dagokienez. Hona hemen berriki burututako lan batean aurkeztutakoak (T-T egiturakoetara mugatzen gara)<sup>12</sup>: *kikili-makala, kriskiti-kraskata, tikili-takala, tikili-tokolo, tiki-taka, tipi-tapa, taka-taka, tapa-tapa, ttaka-ttaka, pinpili-panpala, plisti-plasta...*<sup>13</sup>

---

9. Adibidez, aurreko hitzen jatorria zein-nahi delarik ere, badirudi ondoko beste hauek bokalis-moan oinarritutako haietariko batzuen aldaerak direla: BN. *kiskilo* "burbuila"; BN. *kiskilo*, S. *kiskil/-illi* "azal-pusla"; BN. *kizkilo* "kailu"; L. *kiskilla*, BN. *kiskilo*, S. *kiskilli* "kaskabilo"; V. L. S. *kiskil* "txiro"; AN. BN. L. *kizkor*, V. *kizkirri* "legar"; G. *kiskur* "ile kizkur". Ik. Schuchardt (1906/1957, 481).

10. Ik. Mitxelena (1961/1977, 252).

11. Azkueren (1906) hiztegia astinduz sailkatu ditugu datu hauek.

12. Ik. Ibarretxe (2006).

13. Joseba Lakararren (1995) teoriaren arabera, aitzin-euskararako berreraiki daitekeen bertako lexikoan badira erro disilabiko ugari: *sabel, gibel, aker, maker, belar, bular, ezkur, makur...* Hauetarik, batzuk T-T erroak dira. Orobat, badirudi hauetariko zenbait erreduplikazio zaharrak direla: *zo-zo, ze-zen, a-zal* (< \**za-zal*), *go-gor, o-nol* (< \**no-nol*), *har* (< \**a-nar* < \**na-nar*; erk. *narras*). Hauetarik ere, batzuk T-T motakoak dira. Hona hemen orain arte proposaturiko zenbait: *a-kats* (< \**ka-kats*), *o-kotz* (< \**ko-kotz*), *a-tal* (< \**ta-tal*), *a-dats* (< \**da-dats*), *o-dol* (< \**do-dol*), *i-di* (< \**di-di*), *e-der* (< \**de-der*), *go-go, go-gor*. Bada, erreduplikazioak izaki, hauek espresiboak dira, eta bestalde ahostasun-armonia jasotzen dute. Bestela esan, printzipioz iradoki liteke espresibitatea eta ahostasun-armoniaren arteko loturaren hazia aitzin-euskararen jadanik izatea eta bertatik ondoren hedatu izana. Arazoa da bi kronologia ezberdinak direla, eta oso espekulatiboa dela biak elkartzea, batez ere T-T erroak desitxuratzen dituen \*/k<sup>h</sup>-, t<sup>h</sup>-/ > /h-/ > /θ-/ aldaketa tartean dagoela kontuan hartuta.

#### 4. GAINONTZEKO ERROAK

T-T erroetatik at, badira, halaber, hitz-hasierako ahostunketaren erregelaren hainbat salbuespen eta bikote. Maileguetan:

**koroa** (< lat. *corōna*): *koroa* (det. Añ (G), H (V, G)); *kh-* Urt, Gèze, det. SP, Lecl, Arch, H (L, BN, S); *koro* (*kh-* BN; VocBN, Dv); *koro*e (V, G; *-ouea* Lcc, Lar, Añ (G), Dv (V), H (V)); *koro*i (V-gip; Lar, Añ (V), Izt, Dv, H (V, G)); *koro*-na (Lcc); *korua* (*kh-* Chaho, VocCB (BN, S)); *koro*ia, *korue* (V-gip).

**kale** (< lat. *callem*): *kale* (V, G; Lcc, Lar, Añ, H (V, G)); *kalle* (V-arr, AN-gip; H). Hau ez da sekula agertzen Ekialdeko autoreengan.

**kare** (< \**cale*; gazt. *cal*): *kare* (V, G; Lcc, IC, Mic, Lar, Añ (V, G), H (V, G)).

**keinu** (< lat. *cinnus*): *keinu* (AN-erro, L, B, BN; Lar, Añ, H, VocB); *kheinu* (S; SP, Ht, Lecl, Arch, *-eñu* VocBN, Gèze, Dv, H); *kinu* (V, G; H); *ginu* (H); *jeinu* (*jeñu* Hb); *gainu* (G-nav). Hasperenketa Iparraldeko autoreen ohiko ezaugarria da.

**kirru** (< lat. *cirrus*): *kirru* (V, G; Lcc, Lar, Añ (V), H (V, G)); *kerru* (V-gip). Hualdek (1999, 86-87) markatzen duen legez, *kirru*-k bokalismo zaharra mantentzen du, eta hala ere ez dago aldaera ahostunik.

**kisu** / **gisu** (< lat. *gypsum*): *kisu* (AN-5vill-ulz-egües-ilzarb-olza, L, B, BN-baig, Ae, Sal; Urt (*kh-*), Lar, Aq, Añ (AN), Izt, VEys, Dv (*kh-*), H (G; + *kh-*), VocB); *kitsu* (Añ (AN), Izt); *kizu* (SP (+ *kh-*)); *gisu* (L, BN-ciz, Ht, Arch, VocBN, VEys, Dv, H (L, BN)); *gusu* (Dv (S)).

**kurutze** / **gurutze** (< lat. *crūcem*): *kurutze* (V, G; Ht, Arch, H); *khurutze* (BN, S; Lecl, VocBN, Dv, H); *krutze* (V-m-gip, Sal; Lcc, Añ (V), H); *gurutze* (G, AN, L; SP, Urt, Lar, Añ (G, AN), Dv, H); *gurutz* (V-arraig, G, AN, L). Forma ahostunduak baditu zenbait aldaera: *kurutxe*, *krutxe*, *kurtze*, *kutze*...

**teila** (< lat. *teg(u)la*): *teila* (gral; Urt, Ht, Arch, *th-* Hb, Dv, H, VocB); *tella* (Mic, Lar, Añ, VocBN, Gèze, H, Zam); *theilla* (SP); *taila* (*-ill-* V-gip; *-all-* V-ger).

**taula** (< lat. *tabula*): *taula* (L, BN, S; Volt, SP, Lar, Urt (*thaul*), Ht, Lecl, Gèze, Dv, H (L, BN)); *tabla* (V-gip, S); *tafla* (Deen); *tala* (*th-* Deen)).

**tailu** / **dailu** (< lat. *da(cu)lum*): *tailu* (*-allu* L, BN-baig-ciz, Ae, Sal; *-aillu* Araq); *dailu* (*-allu* BN, S, R-uzt; Arch, VocBN, Gèze, VEys, Hb, *-aillu* Dv, H); *dalla* (AN-ilzarb).

**torre** / **dorre** (< lat. *turrem*): *torre* (V, G, AN-olza, *th-* S, Sal, R; Lcc, Lar, Añ, *th-* Gèze, H); *dorre* (AN, Sal; SP, Urt, Ht, Lar, Lecl, Arch, VocBN, Dv, H).

**piru** (< lat. *fīlum*): *piru* (AN-burg, B, BN-ciz-baig; H, *ph-* Dv, H); *puru* (BN-mix; *ph-* H (BN, S)); *biru* (AN-araq, Sal, R; Aq, H (AN)); *firu* (V-ger-ple-arr-oroz, BN-baig; Mic, Añ (V, AN)); *iru* (V-ple-arraig-oroz).

Hitz disilabikoen artean, ez dugu aise inolako zalantza-izpirik gabe bertakoa eta zaharra den oinarriak aurkitzen. Beraz, talde honetan jatorri eztabaidagarri edo ezezagunekoak diren zenbait ere sartuko ditugu:

**kutsu**: *kutsu* (G, AN, L, Ae; H (G, L), VocB; *kh-* Urt, Ht, Dv, H); *kotsu* (H; *kh-* BN; VocBN, Dv (BN), H (L, BN)); *koza* (H); *kozu* (Sal, S, R; H; *kh-* S; Dv (S), H (S)).

- kutxa:** *kutxa* (gral; Volt, O-SP, SP, Deen, Urt, Lar, Añ (G, AN), Arch VocGr, Dv, H; *kh-* VocBN, Dv, H, Foix ap- Lh.); *kutx* (VocB); *hutxa* (gral; Lar (*u-*), Añ (*u-* V), VocBN, Gèze (*hü-*), H (+ *utxea* V)).
- kirats:** *kirats* (V-arr-oro, G, AN, L; Lar, Añ, H (+ *kh-*)); *kirets* (*kh-* H (L, BN)); *karats* (L, BN, S; H (+ *kh-*)); *kiratz* (H (G)); *karatz* (H); *kerats* (A, que cita a LE); *kiats* (G-bet); *keats* (G-to-bet).
- kino:** *kino* (L (*kh-*), BN-arb-baig, S (*khiño*)); VEys, H; *kh-* Dv, H; *khiño* VocBN, Gèze, H); *kheino*; *kio* (R); *kinu* (SP).
- kamuts:** *kamuts* (G-bet, AN-erro, L, B; Urt (*kh-*), *kh-* Dv y H (+ *kh-*)); *kamutz* (SP, Lar, H); *kamots*; *kamotz*; *amuts* (V-ger-arr-oro, G-azp; Aq); *amots* (V-gip).
- tamal:** *tamal* (V-ger-ple-arr-oro-och-gip, L; Zam). RS-en lekukotzen da estreinako aldiz. Harez geroztik, ez da berriro azaltzen XX. mendera arte, beti bizkaitar eta gipuzkoar testuetan.
- toles:** *toles* (V; Lar, H, Zam); *tolez* (Izt); *toloz* (V-m); *tolest* (Lar).
- kemen / gemen:** *kemen* (V-m, G; Lar, Dv (G), H (V, G)); *gemen* (BN-ciz-arb-baig, Dv (BN), H (BN)). XVIII. mende erditik gipuzkoar autoreengan lekukotzen den forma dugu. XIX. mende bukaeratik, baita bizkaitar eta ipartar —*gemen* formapean— testuetan ere.
- kerren / gerren:** *kerren* (AN-5vill-ulz-olaib, B, L, Sal, R, *kh-* BN-mix; Aq); *gerren* (AN, B, L, BN, S, Ae, Sal, R; Volt, SP, Ht, Lar, Lecl, Arch, Gèze, Dv, H, VocB).
- korotz / gorotz:** *korotz* (V, G-nav, L, B, BN, *kh-* BN, *kh-* S; Lcc, Mic, SP, Añ, *kh-* VocBN, *kh-* H, VocB); *gorotz* (gral; Lcc, SP, Lar, Aq, LE, Añ, Lecl, Arch, VocBN, Dv, H).
- kedar / gedar:** *kedar* (V, G, AN-erro, B, BN-baig; Lar, Añ (G), H, VocB; *kh-* H); *kedarra* (V-arr-oro-m-gip); *kedarra* (AN-ulz-egüés-olza, BN-baig; H (V); *kh-* BN, S; Lecl, Arch, VocBN, Gèze, Dv); *kear* (G-goi-to-bet); *kearra* (G-nav); *kerrade* (Ae; *kh-* S; Gèze, Dv (S), H (S)); *keradi* (*kh-* S); *gedar* (R; Añ (V)); *gedarra* (V-ple-m); *gedarre* (Sal).
- parre / barre:** *parre* (V-m, G-azp-goi; H); *parra* (G; Dv (G)); *par* (G-to); *barre* (V, AN-gip, Sal; Lcc, Lar, Añ, Dv, H); *barra* (Sal, R-uzt; Ht, H); *farre* (G, AN; Añ (G, AN), H); *far* (G-bet).

Hauen parean, oinarri monosilabiko batzuk jar ditzakegu. Nolanahi ere, gehien aldaera ahoskabedunak bazterrekoak dira:

- kar / gar:** *kar* (L (*kh-*), BN-baig; SP, Deen, Urt (*kh-*), Lar, H (+ *kh-*)); *gar* (V, G-azp-nav, AN-ulz-ilarb-olza, B, BN, Ae, Sal, S, R; Lcc, Mic, Lar, Añ, Lecl, Arch, VocBN, Gèze, Dv, H, VocB).
- katz / gatz:** *katz* (AN-gip); *gatz* (gral; Lcc, Mic, SP, Urt, Ht, Lar, Añ, Lecl, Arch, VocBN, Gèze, Dv, H, VocB).
- kur / gur:** *kur* (L (*kh-*); Lar, Dv (*kh-*), H (+ *kh-*)); *gur* (BN, S (*gür*); Lar, VocBN, Gèze (*gür*), Dv, H).
- putz / butz:** *putz* (gral; Lcc, Mic, SP, Lar, Añ, Dv, H, Zam; *ph-* Dv, H); *butz* (Sal, S, R; Gèze, Foix, H); *futz* (AN; Aq).
- poz / boz:** (hau, dena den, < lat. *gaudium*): *poz* (V, G, AN-gip-5vill, B; Lar, Añ, Izt, Dv, H (V, G, + *ph-*), Zam); *botz* (Sal, S, R); *boz* (L, B).

Kasu hauetan ez dago ahostasun-armoniarik, eta bestelako azalpen bat behar dugu. Bat, T-T erroekiko analogia izan liteke. Baina analogia hori izatekotan, T-T erroen ahoskabetasuna espresibotzat jotzen zirelako burutuko zen hedapena. Zuzenean ala zeharka, espresibitatea dugu leherkari ahoskabe haien sorburu.

Nolanahi ere, analogia hori ez da beharrezkoa, eta espresibitate hori erro haietan bertan sortu delakoan gaude. Honen aldeko argudio nagusia aurreko atalean aurkeztu duguna da. Erosoago aritzeko, argudio hori hemen errepikatu dugu, adibideak kasu honi moldatuz. Alegia, hitz hauen hitz-hasierako ahoskabeketak inolako zalantza-izpirik gabe espresibo diren beste baliabide batzuekin gutxienez bi ezaugarri estruktural partekatzen ditu: 1) palatalizazio espresiboa bezalaxe, izenartean soilik agertzen da, baina (ia) inoiz ez adizkietan, izenordainetan, zenbakietan edo bestelako hitz gramatikaletan<sup>14</sup>: *gurutze* > *kurutze*, *gorotz* > *korotz*, *dorre* > *torre*, *barre* > *parre*, baina *\*\*tuzu* ~ *duzu*, *\*\*kara* ~ *gara*, *\*\*tira* ~ *dira*, *\*\*kure* ~ *gure*, *\*\*pertze* ~ *bertze*, *\*\*pehar* ~ *behar*)<sup>15</sup>; 2) mailegatutako /f/ fonemak bezalaxe, nabari da garai zaharrenetan hitz-hasierako leherkari ahoskabeek zailtasunak izan dituztela sisteman sartzeko, baina behin sartuta haien bitxitasuna dela medio espresibotzat hartu direla eta noiz-behinka lexikoan hedatu direla<sup>16</sup>.

14. Argudio bera Hualderen (1999) hitz-hasierako ahostunketaren azalpenaren aurka dago, geure iritziz. Euskarari honen arabera, ahostun eta ahoskabeen arteko txandaketa faktore sintagmatikotetan bilatu behar dugu. Jatorriz, hitz-hasierako leherkari baten ahostasuna aurreko hitzaren azken segmentuak determinatuko zuen: -V# #- testuinguruan, ahostun/ahoskabe oposaketa posible zen, baina -C# #- testuinguruak neutralizatzen zen. C hori -n, -l, -r izanez gero, ondorengo leherkaria ahostuna izango zen; leherkaria izanez gero, ahoskabea. Honela, garai batean *gauza* edo *kirru* hitzak bi aldaera izango zituzten: *...a gauza* ~ *...ak kauza*, *...a girru* ~ *...ak kirru*. Lehen kasuan aldaera ahostuna orokortuko zen; bigarrenean, aldaera ahoskabea (horrexegatik *\*\*kauza*, *\*\*girru*). Baina hipotesi honek zenbait arazo ditu. Lehena, kronologikoa: ziurrenik, hitz-amaierako leherkariak erlatiboki berriak dira. Bigarrena: Hualdek onartzen du antzinako sistemak hitz-hasierako ahostun/ahoskabe oposaketa zuela eta gero item lexiko bakoitzean aldaera bat orokortu zela, baina ez dago ulertzerik nola desager litekeen hain oposaketa funtzional bat prozesu sintagmatiko baten ondorioz. Hirugarrena: sabuespenak salbuespen, argi dago mailegu zaharrenek hitz-hasierako ahostunketarako joera nabarmenagoa dutela, eta Hualderen hipotesiak ez du hau azaltzen. Laugarrena —eta atal honetan gehien interesatzen zaiguna—: Hualderen hipotesia prozesu sintagmatikoa izaki, hitz orotan aplikatzea edo aplikatu ahal izatea espero genuke, baina elementu gramatikaletan ez dago ezein ahoskabeketaren aztarnarik (*\*\*kara*, *\*\*tira*...).

Bestalde, Hualderen hipotesiaren barnean leherkariaren arteko antzinako oposaketa hori ahoskabe/ahostun —*ez fortis/lenis*— modukoa izango zen. Puntu honetan teoria tradizionalaren alde azaldu gara beste nonbait (ik. Martínez Areta, 2006).

Orokorrean, euskararen hitz-hasierako ahostunketa prozesu paradigmatico bat delakoan gaude, hitz bakoitza ahostuntzen den ala ez faktore paradigmaticoen (ahostasun-armoniak, espresibitateak, maileguaren antzinatasunak edo inguruko hizkuntzen eraginak, esaterako) zehazten dutelarik, ez esaldi-testuinguruak. Honexegatik hain zuzen, fonetika sintaktikoan oinarritutako teoriak ere —González Ollé-rena (1972) kasu— ezeztatzen ditugu (ik. Mitxelena 1961/1971, 529-533, egiten dion kritika).

15. Amikuzen, Caminok (1997, 334) *kóizian goizi* jasotzen du. Eta toki berean Miren Pagolak goi-nafarreraz kausitutako *kaua* “gaua”, *peye* “behia” eta *pelarri* “belarri” aipatzen ditu. Bestalde, Hualdek (1999, 84) RS-en eta Lhande-n *kibel* “gibel” ageri zaigula markatzen du. Hauek lexikoaren muin-muineko oinarriak dirudite, baina barrurago muin honetan —adizkietan edo izenordainetan, adibidez— ez bide dago ahoskabeketarik.

16. Berrito, hizkuntza mailegatzailearen forma ahostunduna izanik ere ahoskabeketa gertatzen da batzuetan: lat. *da(cu)lum* > eusk. *tailu* ~ *dailu*, lat. *gypsum* > eusk. *kisu* ~ *gisu*.

Beraz, nola edo hala hitz-hasierako ahoskabeketa baliabide espresiboa izan dela uste dugu<sup>17</sup>. Badira paraleloak. Japonierazko CV egiturako adberbioetan, esaterako, leherkari ahoskabeek arintasuna edo txikitasuna adierazten duten bitartean, leherkari ahostunek astuntasuna edo handitasuna adierazten dute. Erka bitez<sup>18</sup>:

*toN-toN* “arinki”

*doN-doN* “astunki”

CVCV egiturako adberbioen lehen C-an berdintsua dakusagu, ahostasunaren txandaketak batzuetan masa, zakarkeria edo nahasmendua ere adieraz dezake-  
elarik<sup>19</sup>:

*puwa-puwa* “objektu flotatzaile arin”

*buwa-buwa* “objektu flotatzaile astun”

*piku-piku* “mugitzen”

*biku-biku* “astintzen”

*tara-tara* “isurkari lodi argi”

*dara-dara* “isurkari lodi uher”

*kura-kura* “zorabiatuta sentitzen”

*gura-gura* “biziki astintzen”

Bertsua dakusagu aitzin-austronesioaren zenbait errotan<sup>20</sup>:

\**kik* “txorien txioa”

\**gik* “txerrien garrasia”

Honek ez du esan nahi euskararen hitz-hasierako ezein leherkari ahoskabek ezin dezakeenik espresibitatez kanpo beste azalpenik aurkitu. Mailegu berriek azalpen sinpleena izan dezakete: leherkari ahoskabea hizkuntza mailegatzaileak berak ekarri du, eta mailegaketa hori garai batean burutu da, zeinetan hitz-hasierako ahostunketaren erregela ez zen jadanik hain zurrun. Hori *teila*, *pilo* eta *gara*-pen fonetiko erromanikoak (\**VnnV*- > *-VɲV*-, \**VllV*- > *-VλV*-, haueetan) pairatu dituzten beste hainbatetan gerta daiteke.

Gainontzekoek ere —mailegu zaharrek nahiz bertako hitzek— azalpen ezberdinak izan ditzakete. *Koroa*-n (pan-dialektala!), nolabaiteko presio kultista bat izan liteke. Zenbaiten ahoskabeketa lexikoki baldintzatutako prozesu baten emaitza izan liteke<sup>21</sup>, dela antzerako adiera eta formako beste hitz batetiko analogiaz, dela hitz beretik eratorritako beste forma batzuetan ahostasun-armoniak eragin dezakeelako<sup>22</sup>, dela konposatuen bigarren osagaiaren leherkari ahoskabe

---

17. Hau Gavel-ek berak (1920, 317 eta hh., 365 eta hh., 428 eta hh.) jadanik proposatu zuen *khíño* edo *t(h)u* bezalako hitz-hasierako ahostunketaren salbuespenak azaltzeko.

18. Ik. Hamano (1998, 83-87).

19. Ik. Hamano (1998, 125-132).

20. Ik. Blust (1988, 35 eta hh.).

21. Ik. Mitxelena (1961/1977, 241): “El impulso para la creación de variantes con sorda inicial podía ser de muy distinta naturaleza: la imitación, incluso equivocada, del romance, el ensordecimiento de la inicial en segundo miembro de compuesto, la inducción de la consonante inicial de la sílaba siguiente, etc.” Gogora bitez, halaber, Gavel-ek (1920, 317 eta hh., 365 eta hh., 428 eta hh.) hitz-hasierako ahostunketaren salbuespenak azaltzeko posibilitate ezberdinak.

22. Larramendi-n, adibidez, *piz-le* nahiz *biz-le* daude, ziurrenik aldaera ahoskabeak *piz-tu* duela-rik sorburu. Orobat, erk. Lcc. *gorria* baina *corrincoa* “gorringoa” (ik. Mitxelena (1961/1977, 241).

batek eragin duelako ahostasun-armonia<sup>23</sup>. Baina gure ustez hitz-hasierako ahoskabeketaren prozesua zabalegia da kasu guztiak honelako azalpen bigarrenkari bidez argitzeko, eta ukalezina iruditzen zaigu hitz-hasierako ahoskabeketa baliabide espresibo moduan erabili izan (eta izaten) dela euskaraz. Ikus bitez, esaterako, kutsu espresiboa duten (jatorri, kronologia eta hedapen dialektal ezberdinetako) hitz hauek<sup>24</sup>: *kara, kiña, koroso, kuilu, tala-tala, tara, tarras, tarro, taun-taun, terrin, tilin-tilin, tindi, tintil, thini, tirrin, torroil, turru, p(h)orro, parra, purra, purrin, p(h)ulu...* Onomatopeien artean<sup>25</sup>: *kili-kolo, kirriz-karraz, plas egin*. Beste batzuk<sup>26</sup>: *kulu-mulu, tala-tala, tilin-tilin, taun-taun, torro-torroka...*

Hauei, neurri batean misteriotso suertatzen zaizkigun bertako erro monosilabiko batzuk gehi diezazkiekegu:

**ke**: ke (V, G, AN, L, BN, Sal, R-uzt; Lcc, Mic, Deen, Lar, Añ, H; *khe* L, BN, S; SP, Ht, Lecl, Arch, VocBN, Gèze, Dv, H); kee (V-gíp); kei (R); ki (G-nav, AN-araq); gē (Lar, H (G)); eke (AN-5vill-ulz-erro, B, BN-mix-baig, Ae, Sal, R; VocB); ike (L-côte).

**ken-**: *kendu* (V, G, AN, L, B, BN; Lcc, Mic, Lar, Añ, Dv (V, G), H; *kh-* SP, Urt, Ht, Lecl, Dv, H); *kentu* (*kh-* S; VocBN, Gèze); *gendu* (AN-burg, Ae, Sal); *gentu* (R); *ekendu* (B, BN, Ae; *-kh-* T-L); *ikendu* (A, que cita a Lcq).

**tu**: *tu* (G-nav, AN-gíp-5vill-olza, L, B, BN, S; Lcc, Lar, Aq (AN), H; *thu* SP, Ht, Arch, VocBN, Dv, H; *thū* Gèze).

**to**: *to* (gral; Lar, VocBN, Dv, H).

Aurreko kasuetan bezala, lexikora mugatutako prozesua dela ematen du (inoiz ez *\*\*ta ~ da, \*\*tu ~ du, \*\*ku ~ gu, \*\*pai ~ bai*). Diakroniaren ikuspegitik, ezer-gutxi esan dezakegu espekulazio hutsaletan sartu gabe. *Ke*-ren ahoskabetasun pan-dialektala, item lexiko honek ez ezik, *kirats*-en pan-dialektaltasunak ere ziurtatzen bide du (agian < *ke-* + *hats*; erk. G-go-to-bet. *keats*)<sup>27</sup>, baina hortik ondorio irmoak ateratzeari arrisksuegia deritzogu<sup>28</sup>. *Tu* Ekialdeko forma da eta *txistu*-ren laburtzapena izan daiteke. *To* orokorra da, baina hain espresiboa ezen

---

23. Honela, *-pe, -pilo, -kabe* edo honelako elementuekin elkartutako lehen osagaiek ahoskabeketarako testuinguru aproposa izango lukete.

24. Hauek ere, Azkueren (1906) hiztegitik ateratakoak.

25. Ik. Ibarretxe (2006).

26. Ik. Azkue (1906).

27. Baina Mitxelenak (1961/1977, 67) “*kirats, usain txar*” (> “zapore txar”) adieraren inguruko zenbait hitz *\*ken-* batetik eratortzen ditu: BN. L. *k(h)jino* (Ainhoan *kindu*), S. *khiño*, R. *k̄to* (*gáizto*); AN. BN. G. eta Sal. euskalkietan *keru* dugu; AN. eta G.-z, *ke(r)ats*; asimilazioz, BN. R. Saug. Oih. *karats*, S. *khá(r)ats*; AN. R. L. V. (eta Etx.) *kirats*; AN. BN. *k(h)irets*. Talde berean *korotz/gorotz* ere sar genezake.

28. *Gorotz* aldaera ahostuna albo batera utzita, gainontzekoek hitz-hasierako ahoskabea dute euskalki guztietan. Printzipioz, honek hitz-hasierako *\*k-* berreraikitza behartuko gintuzke (hau da, *\*/t<sup>h</sup>-, k<sup>h</sup>-/ > /h-/* aldaketaren ondorengo *\*k-* bat). Baina kasu bakarra izango litzateke. Dirudienez, indoeuropariek *\*/k<sup>h</sup>-/*-ren berreraiketaren aurrean duten arazoaren (non ved. *śankhá-* eta gr. *κόγχος* formen arteko erkaketak sistemak zilegitzen ez duen *\*konk<sup>h</sup>o-* “itsas maskor” batera garamatzen) antzeko aporia bat dugu hemen: bi kasuetan, item baten berreraiketak sistema orokorrak zilegitzen ez duen aitzin-fonema batera bideratzen gaitu.

ia lexikotik kanpo utz dezakegun. *Putz* ahostun-armonia batean izan dezake sorburua (< *puz-tu* seguru asko). *Ken-* (*kendu*-ren erroa, Mitxelenaren aurreko \**ken-*ekin zerikusia izan ala ez) bereziki txundigarri suertatzen zaigu, *k-* > *h-* garapena espero baikenuke. Laburbilduz, lekukotasun hauek eskasegiak dira eta agerpen anarkikoegia erakusten dute ondoriorik ateratzeko. Lortzen dugun zirrara orokorra da ahoskabeketa espresiboak nola edo halako aribide sistematiko bat izan behar izan duela, baina ez dakigula hura nola zehaztu.

Atal hau bukatzeko, pare bat oharpen egin nahi genituzke. Lehen: hitz-hasierako ahostunketaren erregela deboraren poderioz bigundu den arren, euskarazko lexikoaren muinean hitz-hasierako ahostun/ahoskabe oposaketa ez da sekula zeharo berreraiki. Norbaitek amerikar estrukturalistek aldarrikatutako “once a phoneme, always a phoneme” leloa aipa liezaguke, baina /m/ fonemaren kasuan ez bezala, non barneko garapenek /m/-ren erabateko fonemizazioa eragin duten (\**bini* > \**bīhī* > *mīhī* > *mihi*, / *bihi*; edo *senbe* > \**semme* > *seme*), egungo euskaraz hitz-hasierako leherkari ahostun eta ahoskabeen arteko bikote minimoak aurkitzeko hitz espresiboetara edo mailegu berrietara jo behar dugu (*buru* / *puru*, *baso* / *paso*, *gorri* / *korri*...)²⁹. Gainera, testu-maiztasunaren azterketek frogatu dute hitz-hasieran leherkari ahostunak askoz maizago agertzen direla ahoskabeak baino. Biritxinagaren azterketa batean oinarrituz —non ehun mila grafemako corpus bat jorratzen duen— Txillardegik (1982, 91-93) markatu duen legez, kokaleku horretan leherkariak erakusten dituzten agerpenak honako hauek dira: *p-* = 308, *b-* = 2215 (*b-* 7 aldiz maizago); *t-* = 114, *d-* = 1440 (*d-* 13 aldiz maizago); *k-* = 318, *g-* = 1013 (*g-* 3 aldiz maizago). Gure aburuz, hau ere hitz-hasierako leherkari ahoskabeen kutsu espresiboaren aldeko zantzu nabarmena da. Oposaketaren berrezarpena ez da inoiz burutu euskaldunek beti sentitu dutelako beren barne-barneko lexikoan leherkari zilegitu bakarrak ahostunak zirela, /p-, t-, k-/ eremu semantiko ezohizkoetara mugatu eta nolabaiteko sasi-fonematizat hartu dituztelarik.

Bigarrena: hitz-hasierako ahoskabeketaren interpretazio espresiboak palatalizazio espresiboa ere ikuspegi berri batetik ulertzea zilegitzen digu. Baliabide honen arazo bat zen lexikoki baldintzatutako prozesua izaki (funtsean /s, ś, n, l, t/ fonemei soilik aplikatzen zaielarik) ez zela erabat funtzional gertatzen. Baina hitz-hasierako ahoskabeketa ere espresiboa bada eta harekiko banaketa osagarrian bada, disfuntzionaltasun hori murriztu egiten da, orain /b-, d-, g-/ fonemei ere baliabide espresibo bat aplikatu dakiekeelarik (nola *zekor* > *txekor*, hala *barre* > *parre*).

## 5. AHOSTASUNEAN OINARRITUTAKO OPOSAKETA EZ-LEXEMATIKOAK

Orain leherkariaren ahostasuna baldintza dezakeen beste parametro bat sartuko dugu jokoan. Zilegi bekigu Lakarrak arestian proposaturiko zenbait etimologia aurkeztea³⁰. Denak e-CVC-i egiturako aditz-erroak dira:

29. *Tarte*, *tegi*, *toki*, *kide* eta konposatuaren bigarren osagaietatik bereizitako beste itemak bertakoak dira eta ez dute sekula aldaera ahostunik erakusten, baina hitz hauek, berez, jatorri bigarrenkaria dute, eta sarritan aldakorak dira euskalki batetik bestera.

30. Argitaratugabeko zirriborro batean. Ik. Lakarra (2004). Ohartarazi nahi genuke hauetariko batzuk oso espekulatiboak direla.

<i>*thor</i> “etorri”	<i>*dor</i> “lortu” (> <i>lor-tu</i> )
<i>*then</i> “hondatu” (ik. <i>eten</i> )	<i>*den</i> “kendu” (ik. <i>edeki</i> )
<i>*thuts</i> “hustu” (ik. <i>or-t(h)uts</i> )	<i>*duts</i> “eutsi”
<i>*khal</i> (?) “hartu” (ik. Etx. <i>hari-tu</i> ~ <i>har-tu</i> )	<i>gal</i> “galdu”
<i>*khel</i> “heldu” (> <i>hel-du</i> )	<i>*gel</i> “gelditu”
<i>*kher</i> “itxi” (> <i>herts-i</i> , <i>herr-i</i> )	<i>*ger</i> “hertsitu” (ik. <i>gerr-i</i> )
<i>*khor</i> “estalita (?)” (> <i>horr-i</i> )	<i>gor</i> “larrutu” (ik. <i>gorr-i</i> )
<i>*khuz</i> “garbitu” (ik. <i>i-kuz-i</i> )	<i>*guz</i> “bildu” (ik. <i>guz-ti</i> )

Badirudi hauetariko oposaketa batzuk ez direla erabat lexematikoak (edo ple-matikoak, Hjelmslev-ek esango lukeen legez), hau da, ahostasun / ahoskabe oposaketak ez dituela bi lexema bereizten, lexema beraren bi aldaera baizik. Semantika hain eremu labainkorra izaki, norabide honetan zehazten saiatzeak espekulazio traketsetara bideratuko gintuzke, baina planteamendua bere orokortasunean deigarri gertatzen da. Kasu batzuetan, oposaketa horrek intentsi-boa edo telikoa dirudi (*\*thor* / *\*dor*, *\*khel* / *\*gel*). Beste batzuetan, antonimikoa (*\*khal* / *\*gal*, *\*khor* / *\*gor*).

Badira leherkariaren ahostasunean oinarritutako oposaketa ez-lexematikoen paraleloak. Hala nola, kinaurin eta txinera zaharrean. Kinauri-n<sup>31</sup>:

<i>tön</i> “irtenarazi”	<i>dön</i> “irten”
<i>phar</i> “lehertarazi”	<i>bar</i> “lehertuta izan”
<i>pöng</i> “bete”	<i>böng</i> “beteta egon”

Txinera zaharrean:

<i>phjuwk</i> “itzuli (trans.)”	<i>bjuwk</i> “itzuli (intrans.)”
<i>pjet</i> “bereizi (trans.)”	<i>bjet</i> “bereizi (intrans.)”
<i>tsyet</i> “bihurritu (trans.)”	<i>dzyet</i> “bihurritu (intrans.)”

Eztabaidara genezake ez ote zen aitzin-euskaraz antzerako zerbait gertatuko, eta ez ote dugun datu historikoetan aldakortasun horren zantzurik izango. Ikus bitez Mitxelenak (1961/1977, 231-233) aurkeztutako ahostun / ahoskabe txandaketa hauek:

orok. <i>ebaki</i> , V. <i>ebagi</i>	V. <i>epailla</i> , G. <i>epaille</i> , BN. S. <i>epaile</i> , V. <i>epai</i>
ek. <i>ebatsi</i>	Oih. <i>epaixka</i> “ezkutuan”, Etcheb. <i>ephaskoa</i>
orok. <i>irabazi</i>	V. (RS) <i>irapazi</i> <sup>32</sup>
orok. <i>edeki</i> , V.zah. <i>edegi</i>	G. <i>etekin</i>
orok. <i>eduki</i> , <i>iduki</i>	V.zah. (RS) <i>ituten</i> “edukitzen”
orok. <i>egosi</i>	V. <i>ekosari</i> “egoskari”
orok. <i>igan</i> , <i>igo</i>	Oih. <i>ikai</i> “igoera”, Pouv. <i>ikaitza</i> , BN. <i>ikhan</i>

31. Ondoko adibideak —kinauri zein txinera zaharrekoak— Lakarrak (2004) aipatzen ditu eta Sagart (2004)-tik aterakoak dira.

32. Baina *irabacia* / *irapaizteco*, *irapaizliac* Tartas-en Onsa-n!



Beste bi hauek ez dira hain garbi:

Leiz. *aurditen* “jaurtikitzen”

Dech. *egarri* (eta agian RS. *eguarria*)

Leiz. *aurthiten*

orok. *ek(h)arri*

Kasu batzuetan leherkari ahoskabea ondorengo leherkari ahoskabe baten asimilazioz sortu ahal izan bada ere (erk. Tartas-en *irabacia* / *irapaizteco*), azalpen hau ez bide da kasu orotarako baliogarri. Mitxelenak (1961/1977, 232) dio:

Se trata a todas luces de una alternancia antigua, que ya en los primeros textos muestra las características de un arcaísmo sin valor preciso, en vías de lenta desaparición. Aunque la distribución original de las consonantes alternantes aparece oscurecida, se diría que el participio (y naturalmente el radical) presentaba una oclusiva sonora frente a la sorda del sust. verbal y de otros nombres de acción y de agente.

Beste zantzu bat partizipioak eratzten zituen *-gi/-ki* atzikiaren banaketa dialektala izan daiteke. Lehen aldaera V-z agertzen da; bigarrena gainontzeko euskalkietan. Baina lehenaren lekukotasun solte batzuk badira Ekialdean. Banaketa honen arrazoia izan liteke euskalki bakoitzak antzinako morfema beraren aldaera bat orokortu duela.

Hau honela balitz, hau da, aitzin-euskararen erroen arteko ahostun / ahoskabe oposaketa ez balitz erabat lexematikoa eta lexema beraren bi aldaera sorrarazteko erabiliko balitz, galdekizun osoa are korapilatsuago bihurtuko litzai-guke. Dena den, hau ez dagokio zehatz-mehatz hemen gure ikergai den hitz-hasierako ahostasunari, oposaketa antzinakoa izanez gero haren parametro garrantzitsu bat izan litekeen arren. Gainera, kronologiak bereiztea komeni zaigu. Aurreko bi ataletan aztertzen aritu garen faktoreak —ahostasun-armonia eta espresibitatea— eraginkor izan diren garaian, ziurrenik *-gi* eta *-ki*, *edeki* eta *ete-kin*, *igan* eta *ikhan*, eta beste aldaera zaharrak euskalki ezberdinetan fosilduak ziren aspalditik.

## 6. AMAIERAKOA

Esan dugu ez dugula hitz-hasierako ahostasunaren teoria orokor bat proposatzeko asmorik, prozesuaren burutzapenean eta haren salbuespenetan parte hartu ahal izan duten faktoreak arakatzeko baizik. Aipatutako gertakarien harilketa kronologiko zehatzik ere ez dugu burutuko, baina bai komuntzat jo ditzakegun gertakarien eta komuntzat jo ezin ditzakegun gertakarien arteko bereizketa bat.

Behin-behinik ‘euskara komun’ izenda dezakegun garai batean, \*/<sup>h</sup>-, k<sup>h</sup>-/ > /h-/ > Ø- aldaketaren ondorioz, euskarak leherkari-serie bakarra zilegitzen zuen hitz-hasieran: \*/b̥-, d̥-, ɟ̥-/. Geroztik gauzatutako hasperenketen disimilazioaren ondorioz, hasperenketa ezaugarri sintagmatiko bihurtuko zen eta hasperenketan edo fortizioan oinarritutako sistema batetik ahostun/ahoskabe oposaketan oinarritutako beste batera igaroko zen; honela, /b̥-, d̥-, ɟ̥-/ > /b-, d-, ɟ-/. Esparru kronologiko guzti honetan, latinetik zein erromanikotik mailegatutako hitzak oro euskararen sis-

tema fonologikoari egokitu zitzaizkion, hitz-hasierako ahoskabeak zein ahostunak euskararen serie bakarrera (/b̥, d̥, ɡ̥/ lehen, /b-, d-, ɡ-/ beranduago) moldatuz (lat. *causa* > eusk. *gauza*). Halaber, baliteke hizkuntzaren sistemak berak garai honetan jadanik leherkariaren ahoskabetasuna adiera ez-lexematikoekin (are espresiboekin?) elkartu izana (erk. *\*thor* / *\*dor*, *\*kher* / *\*ger* aditz-erroak, eta bestalde orok. *edeki* / G. *etekin*, orok. *igan* / BN. *ikhan*). Garai komun batez ari gara hemen; beraz, gertakari hauek guztiak euskalki orotan gauzatzen ziren.

Garai berantiarrago batean, euskalkien arteko ezberdintasunak areagotu ahala, hizkuntza erromanikoetatiko mailegaketa hain ugari bihurtu zen, non azkenean hitz-hasierako ahostunketaren erregela bigundu zen. Baina bilakabide hau franko aldatzen zen euskalki batetik bestera, maiz euskalki berean bikoteak sorrarazten zituen (V. *pake* ~ *bake*, AN. *torre* ~ *dorre*), bertako lexikoan gutxiago eragiteko joera agertzen zuen, eta (ia) inoiz ez zien elementu gramatikalei erasaten (*\*\*tu-te*, *\*\*tira*, *\*\*ku*). Ezin gaitezke erabat ziur izan lehenago ere (garai komunean) hitz-hasierako leherkari ahoskabeek jadanik kutsu espresiborik zuten ala ez. Hitz-hasierako leherkari ahoskabeak inoiz erabat fonemizatu ez izanak eta palatalizazio espresiboarekiko paralelotasunak baietz iradokitzen dute. Baina jatorrizkoa izan ala ez, ez dago zalantzarik hitz-hasierako ahoskabeketaren erabilpen espresiboa gero eta gehiago zabaldu dela, eta bestalde beste joera batekin nahastuz joan dela: 'leherkari ahostun-leherkari ahoskabe' egiturako hitzetan (hots, T-T erroetan), lehen leherkariaren ahostasuna maiz bigarrenarenera asimilatu da: *gal-te* > *kalte*, *barkatu* > *parkatu*. Hauetarik, maileguetan ez dago beti argi aldaera ahoskabearen garapena zein izan den, hau da, *parkatu*-ren *p*-sekula ez ahostundutako leherkari bat ala ahostundutako eta beranduago asimilazioz berriro ahoskabetutako leherkari bat den.

Garai historikoetan ahoskabeketaren baliabide espresiboa areagotu da eta eginkizun honetan palatalizazioarekiko banaketa osagarrian izan da. Dena den, hitz-hasierako leherkari ahoskabeak ez dira sekula inongo euskalkitan zeharo fonemizatu, eta gaurdaino halako kutsu espresibo edo arrotz bat darie.

Laburbilduz, uste dugu euskararen hitz-hasierako ahostunketa barneko prozesu bat izan zela, eta haren salbuespenetan faktore paradigmaticoek —esalditestinguruekin zerikusirik ez dutenek— soilik hartu dutela parte. Hauen artean, T-T erroen ahostasun-armonia, espresibitatea, maileguen antzinasuna eta alboko hizkuntza erromanikoen eragina aurkitzen ditugu. Joera hauek garai ezberdinetan izan dira eraginkor, eta intentsitate ezberdinekin aritu dira euskalki batetik bestera. Ez dago aldaera ezberdinen agerpenaren banaketa geografikoa auresateko modurik, eta sarritan euskalki edo herri berean bi aldaerak agertzen dira. Dena den, deigarri suertatzen da nola mantentzen dituzten euskalki periferikoek zenbait arkaismo: item lexiko jakin bat bertakoa ala mailegatutakoa den arabera, arakaismoaren norabidea bat ala kontrakoa izan daiteke. Honela, bai Lcc-k bai R-k *gal-te* (gainontzeko euskalkien *kal-te*-ren aurrean) baina *tenp(o)ra* (gainontzeko euskalkien *denbora*-ren aurrean) agertzen dituzte. Haien kokapen periferikoak, antza denez, egoera paradoxikoa sorrarazten du. Hizkera periferikoak diren aldetik, zenbait arkaismoren gordeleku izan dira. Bainaaldi berean hizkuntza erromanikoen albo-alboan daudenez, haien eragin handiena jaso dutenak ere badira.

## BIBLIOGRAFIA

- AZKUE ABERASTURI, Resurrección María. *Diccionario vasco-español-francés*. 1. arg. Bilbo: Biblioteca de la Enciclopedia Vasca, 1906.
- BLUST, Robert. "Beyond the morpheme: Austronesian root theory and related matters". In: MCGIN, Richard (arg.). *Studies in Austronesian Linguistics*. Ohio: Ohio University Center for International Studies, Southeast Asia Series Number, 76, 1988. 3-90 orr.
- CAMINO LERTXUNDI, Iñaki. *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. 1. arg. Lasarte-Oria: Nafarroako Gobernua, 1997.
- GAVEL, Henri. *Éléments de Phonétique Basque* (= RIEV, 12). Paris, 1920.
- GÓMEZ LÓPEZ, Ricardo. "Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra?". In: ORPUSTAN, Jean-Baptiste (arg.). *Le basque parmi les autres langues: influences, comparaisons*. Bordeaux-Baiona: Univ. de Bordeaux III & CNRS, 1994. 93-114 orr.
- GONZÁLEZ OLLÉ, Fernando. "La sonorización de las consonantes sordas iniciales en vascuence y en romance y la neutralización de k-/g- en español". *Archivum*. 1972. 22 zbk., 253-274.
- GORROCHATEGUI CHURRUCA, Joaquín. *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*. 1. arg. Bilbo: Euskal Erriko Unibertsitatea/Universidad de Salamanca, 1984.
- HAMANO, Shoko. *The Sound-Symbolic System of Japanese* (= *Studies in Japanese Linguistics*, 10). 1. arg. California: CSLI Publications, 1998.
- HUALDE, José Ignacio. "Pre-Basque Plosives". In: FRANCO ELORZA, Jon Andoni; LANDA AREVALILLO, Alazne (arg.). *Gramatical Analyses in Basque and Romance Linguistics*. Amsterdam: John Benjamins, 1999. 77-104 orr.
- HURCH, Bernhard. *Über Aspiration. Ein Kapitel aus der natürlichen Phonologie*, 1. arg. Tübingen: Gunter Narr Verlag, 1988.
- IBARRETXE ANTUÑANO, Iraide. "Ttipi-ttapa ttipi-ttapa... korrika !!! Motion and Sound Symbolism in Basque". In: LAKARRA ANDRINUA, Joseba Andoni; HUALDE, José Ignacio (arg.). *R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz* (= ASJU-ren Gehigarriak, 40). Donostia/Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea/Gipuzkoako Foru Aldundia, 2006. 499-517 orr.
- LAKARRA ANDRINUA, Joseba Andoni. "Reconstructing the Pre-Proto-Basque Root". In: HUALDE, José Ignacio; LAKARRA ANDRINUA, Joseba; TRASK, Robert Lawrence (arg.). *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam: John Benjamins, 1995. 189-206 orr.
- . "Etymologiae (proto)uasconicae LXV". In: ARTIAGAGOITIA BEASKOETXEA, Xabier; GOENAGA MENDIZABAL, Patxi; LAKARRA ANDRINUA, Joseba Andoni (arg.). *Erramu bone-ta: Festschrift for Rudolf P. G. De Rijk* (= ASJU-ren Gehigarriak, 44). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2002. 425-442 orr.
- . "Cuernos, pellejos, caballos y otras anécdotas: Notas sobre la reconstrucción de algunas C- y V- iniciales y de la gramática y morfología protovasca antigua". Argitaragabea, 2004.
- . "Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco". In: BELTRÁN LLORIS, Francisco; JORDÁN CÓLERA, Carlos; VELAZA FRÍAS; Javier (arg.). *Acta Paleohispanica IX. Actas del IX coloquio sobre lenguas y culturas paleohispánicas (Barcelona, 20-24 de octubre de 2004)* (= *Paleohispanica* 5). Zaragoza: Institución "Fernando el Católico", 2005. 407-470 orr.

MARTINET, André. "De la sonorisation des occlusives initiales en basque". *Word*. 1950, 6 zbk., 224-233 orr.

— . "La reconstrucción estructural: las oclusivas del vasco". In: *Economía de los cambios fonéticos*. Madril: Gredos, 1955/1974. 524-550 orr.

MARTÍNEZ ARETA, Mikel. "El consonantismo proto-vasco". Zuzendaria: Joseba Andoni Lakarra Andrinua. Argitaratu gabeko Tesi doktoralak. Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia Fakultatea, Hizkuntzalaritza orokorra eta euskal ikasketak Saila, 2006.

MITXELENA ELISSALT, Koldo. "La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet". In: LAKARRA ANDRINUA, Joseba Andoni; ECHENIQUE ELIZONDO, M<sup>a</sup> Teresa; URGELL LÁZARO, Blanca (arg.). *Sobre Historia de la Lengua Vasca* (= ASJU-ren Gehigarriak, 10). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1951/1988. 203-211 orr.

— . 1957, "Las antiguas consonantes vascas". In: LAKARRA ANDRINUA, Joseba Andoni; ECHENIQUE ELIZONDO, M<sup>a</sup> Teresa; URGELL LÁZARO, Blanca (arg.). *Sobre Historia de la Lengua Vasca* (= ASJU-ren Gehigarriak, 10). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1957/1988. 166-189 orr.

— . *Fonética Histórica Vasca* (= ASJU-ren Gehigarriak 4), 2. arg. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1961/1977.

*Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987-2005.

SAGART, Laurent. "La parenté des langues austronésiennes". In: ZEITOUN, Elizabeth (arg.). *Les langues austronésiennes* (= *Faits de Langues*, 23-24). Paris: Ophrys, 2004. 23-39 orr.

SCHUCHARDT, Hugo. "Vascuence y romance (I)". *BAP*. 1906/1957, 13 zbk., 463-487 orr.

— . "Vascuence y romance (II)". *BAP*. 1906/1959, 15 zbk., 181-205 orr.

— . "Vascuence y romance (III)". *BAP*. 1906/1960, 16 zbk., 339-363 orr.

TRASK, Robert Lawrence. "On the reconstruction of pre-Basque phonology". In: MELENA JIMÉNEZ, José Luis (arg.). *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1985. 885-891 orr.

TXILLARDEGI (= ÁLVAREZ ENPARANTZA, José Luis). *Euskal Fonologia*. 1. arg. Donostia: Ediciones vascas, 1982.